


# Hitz beste

*Haur- eta gazte-liburuen kritika eta erreseinak*



## **Hasiera**

PAULA CARBALLEIRA

Ilustratzailea: SONJA DANOSWKI

Itzultzailea: MANU LÓPEZ GASENI

*Pamiela-Kalandraka, Iruña, 2012*

### **Haurren begietatik**

Gerrak ikaragarriak dira, eta gerraren laztura are handiagoa da umeak tartean direnean. Hori da album ilustratu honek lehenengo orrialdetik sortuko digun zirrara: kaleak suntsituta, trasteak hondatuta, eta, halere, bizitzak bere bidea.

Liburu honetan testua eta irudiak elkarren osagarri dira, eskutik helduta doaz ohiko bihurtu zaigun gertaera lazgarria irudikatzeko. *Hasiera* da izenburua, baina, izatez, amaiera da, gerraostean kokatzen baita. Paisaia desolatuaren aurrean, ezer gutxi geratzen denean, haurren begirada da hasiera: «*jendea triste zegoen [...] norbait jolasten hasi zen [...] neska ezezagun bat barre egiten hasi zen*».

Irudietan haurren begirada garbia bereiz daiteke, ostera ere berriaren berriz hasteko prest dagoena, larrialdietan agertzen den gainditze gogoia, bizirik egotearen poza, haurren bizirik irauteko sena.

6+

Marrazkiek gidatzen gaituzte kontakizunean, ikusgarriak dira, hitzek baino irudiek dute pisu nabarmenagoa, hiperrealistak dira. Esperantza mezua helarazteko orduan, ilustratzailea ez da ahalegindu irudiak goxo eta atsegin bihurtzen, kolore marroia eta grisa dira nagusi, hautsak dena hartu izan balu bezala. Haurrek suntsipenaren paisaian jolasten dute, harri eta kristalen artean egiten dute festa.

Berlinen bizi den ilustratzaile honen lehenengo liburua dugu, izugarrikeriaren aurrean samurtasuna erakusten digu, irudimenaren indarra adierazten digu.

Testua, berriz, Paula Carballeira idazle gali-ziarrarena dugu, esaldi laburrak, ideia nagusiak sakonak, eta deskribapen biluziak «*argindarrik ez zegoen [...] lurra kristalez beteta zegoen*» ez da beharrezko hitz ugari, ingurua suntsituta agertzen denean.

Kontakizuna xumea da, tonu poetikoa, nabarmena: «*autoan bizitzera joan ginen, geroztik, bizitzea bidaiatzea zen*».

Pamiela argitaletxeak idazle honen beste liburu interesgarri bat kaleratu du aurtun: *Smara*. Lehendik ere baginen *Matteo* eta *Patxiku* album ilustratuen miresle.

Ataka estuetan ilusioa izateko mezua bidaltzen digun liburua dugu, horregatik da adin guztietarako gomendagarria, bikaina eta beharrezkoa.

Asun Agiriano



## **Otsoño**

GREGOIRE SOLOTAREFF

Itzultzailea: MIRENTXU IBARGARAI

*Ikas, Uztaritze, 2011*

### **Lagun minak**

*Ikas pedagogia zerbitzua* argitaletxeak oraingoan ere, 2011n, album ilustratu garrantzitsu bat ekarri digu eskura, *Otsoño* izenekoa, alegia.

Izan ere, Philippe Corentin-en *Plast!* ipuin umoretsu eta biziak hizpide izan genuela urtebete bada (ikus *Behinola*, 24, 42. orria). Gaurkoan, Solotareff ilustratzaile ausart eta ezagunaren eskutik, untxiarekin batera protagonista nagusizat otsoa hartzen duen istorioa dugu. Solotareff-en kontakizunetan untxia eta otsoa dira, sarri, haria daramaten animaliak.

Egilea Alexandrian jaio zen, 1953an, eta, egun, Parisen bizi da. Ama Egipton errefuxiatu zen margolari errusiara zuen, eta bera, medikuntza ikasi arren, ilustrazio-munduan hasi zen. 1985ean,

lehenengo album ilustratua argitaratu zuen, eta handik lau urtera, *Otsoño* liburua kaleratu zuen Frantzia.

Istorioren nondik-norakoa xumea da: otso gaztea osabarekin batera ehizara ateratzen da, gauza ugari ditu-eta ikasteko. Osaba, arrapaladan doala, haitz bat jo, eta seko hilik geratuko da. Otsoño bakarrik dago eta, laguntza eske dabilela, Txom ezagutuko du, inoiz otsoarik ikusi gabeko untxi lasaia. Elkar ezagutuz, jolasten hasiko dira: bata besteari arineketa azkarrena izaten erakutsiko dio, untxiak arrantzatzea eta irakurtzea zer den irakutsiko dio otsoari... Eta, *otsoaren beldur* jokoan, ordura arte ezezaguna zuen benetako izua sentituko du untxiak. Otsoño, aldiz, ez da ikararuko *untxiaren beldur* ari direlarik. Batzuetan, istorio dibertigarria dirudien arren, goxoa da, ezusteko ugari emango diguna.

Narratzaile gisa, Solotareff istorio-asmataile zehatz eta interesgarria dugu. Honetan ere, eskutik helduta datoz haur-literaturako bi gai ohikoak: adiskidetasuna eta beldurra.

Solotareffek bakardadea, adiskidetasuna eta hurkoaren ezberdintasuna ulertzeko gaitasuna miatzen ditu, eta, horretarako, otsoak iradokitzen duen jatorrizko beldurraren arketipoa erabiliko du.

Haurrari sinesgaitz egiten bazaio ere, zeharo ezberdinak diren animaliak lagun egingo dira, untxiak ez baitu inoiz otsoa gertutik ikusi, eta gauza bera gertatu baitzaio otsoari. Beraz, elkar ezagutzen duten heinean, *mina* ere zer den jakingo dute, lagun minek ere inoiz mina ekartzen baitigute. Adiskidetasun-istorioetan gertatzen den bezala, une pozgarriak eta tristeagoak edo garratzagoak biziko dituzte.

Solotareffen kontakizunetan, xehetasunak gorabehera, azaltzen zaizkigun protagonistek gutxitan izaten dute izaera maltzurra edo gogorra, eta, askotan, inozoak eta onberak dira, eta izaera hori da, hain zuzen ere, ipuinen bukaeran gailentzen dena.


Ilustratzaile lanetan, gustuko dut Solotareffen estetika modernoa, itxura batean sinplea, baina ia beti kolore biziak, indartsuak erabiltzen dituen: gorria, beltza, horia eta urdina.

Iparraldeko Ikas argitaletxeak itzulitako liburua izanik, lehenengo irakurraldian zenbait berba arrotz egingo zaizkigu; baina, halere, testuaren

*handicapa* alde batera utzita, ilustrazio abangoardistaren proposamenak interesgarri egiten du albuma bera.

Amaitzeko, gogora ekarri behar dugu *1001 Libros infantiles que hay que leer antes de crecer* antologian (Quentin Blake; Julia Eccleshare, Grijalbo 2010), *Otsoño* ipuina dela egile honen gomendatutako liburu bakarra. Euskaraz izatea zoriona da.

Asun Agiriano



### Enara ttipia

MIKEL MENDIBIL AINZUA

Ilustratzailea: MIKEL MENDIBIL AINZUA

Denonartean, Berriozar, 2012

### Enarekin batera

«Itsaslabarrean, lasto eta buztinezko habia bat bizipozez bete da udaberrero bezala. Habiak bost arrautzatxoren barruak gordetzen ditu, epel eta goxo hazten. Adi! Moko txiki batek arrautza-oskola hautsi du!»

Horrela hasten da enara ttipi eta abenturazale honen lehenengo egunak kontatzen dituen istorio hau. Txita jaiotako itsasoa ikusiko du, bere mokoan ezarritako tximeleta, paretan behera datorren muskerra... habian dagoelarik mundu bat deskubritzen joango da enara ttipia, eta mundu ttipi horretatik mundu handira egingo du jauzi hegan hastean.

Liburuaren argumentua, beraz, horixe izango genuke, nola deskubritzen duen mundua enara txikiak, koloreak, animaliak, toki eta egoera ezberdinak, eta azkenik, janari asko dagoen leku zoragarria. Bidaiaaren amaieran, enara habiara itzultzen da eta han bere bidaia berri ematen die senideei: «Ibaiari jarraituz, gure txoritxo erraz itzuli da etxera, eta senideek pozez zorutzen hartu dute. Bere balentriak kontatu dizkie, eta janaz makuru dagoen laku zoragarria deskribatu dienean bertara bizitzera joatea erabaki dute.»

Liburuak, baina, testua baino irudien bidez kontatzen digu istorioa. Irudi errealista eta ikusgarrien bidez Mikel Mendibilek errealtatearen ikuspegi oso ezberdin eta ederrak eskaintzen dizkigu. Hasieran bertan habia itsaslabar batean kokaturik aurkezten zaigu, eta goitiki ikusita habia

barruan dauden arrautzak ikus ditzakegu, eta alboan amildegia, pareta itsasoraino. Enararen bidaia ere antzeko zerbit gertatzen da, laku zoragarria, kolorez betea, aurki dezakegun bezala, badugu behiaren buru handia eskaintzen digun irudia; hots, enararen ikuspegitik eginiko irudia; eta horrela, narratzaileak (aurretik ikusi ahal izan dugun bezala hirugarren pertsona) istorioaren nondik norakoa kontatzen digun bitartean guk enararekin batera egingo dugu bidaia, berak bezala hegan eginez, eta bere begiek ikusten dutena ikusiz.

Istorko aparteko intrigarik edo misteriorik ez badu ere (txoritxoaren bidaia baten kronika genuke liburuaren argumentua), liburu honek merezi du gutxienez hiru arrazoi nagusigatik: alde batetik eskaintzen dituen irudiengatik, ikusgarriak eta ikuspegi aberatsekoak; beste alde batetik Mikel Mendibil plazaratzeko aukera eskaini duelako, eta lan honen ondoren beste asko egingo dituela espero dugulako; eta azkenik, Denonartean argitaletxe txikiak, eta bera bezala sortzen ari diren beste batzuek, kalitatearen alde eginiko apustuagatik.

Xabier Etxaniz Erle



### Nire amonaren etxea

PEP BRUNO

Ilustratzailea: MATTEO GUBELLINI

Itzultzailea: HARKAITZ GOIKOETXEA

Txalaparta, Tafalla, 2011

#### Amonaren etxea

Ipuin tradizionalatik dakigu, *amonaren etxea* aipatzen zaigunean, ez dela beti toki lasaigarri eta baketsua izaten, ezen batzuetan leku urrun horretara iristeko haurrak arriskuz betetako bidea zeharkatu behar izaten baitu, ezuste franko izan, eta oztopo ugari gainditu. Haurraren irudimenean amonaren etxe bakartia eta otso maltzurra betiko lotu dira.

Gaurko kontakizunak otsoa ez baina izaki beldurgarri eta misterioz betea aurkezten digu. Ezer ez da itxura batean den modukoa, eta idazlea zein marrazkilaria, keinu ugariaren bitartez, irakurlearen konplizitatearen atzetik dabilta.

Ipuina hasi aurretik, ikusten dugu amona ere ez dela ohikoa: kapela beltz luzexka jantzita, erratza eskuan duela, bilobaren etxean agertzen da urtebetetze-eguna ospatzeko, baina etxeko sotoan utzi du ahaztuta tarta goxoa.

Jarraian datozen orrialdeetan basoa zeharkatzen du neska protagonistak, arinetan abiatzen da tartaren irudia gogoan, animalia bitxiak zelatatzen duten bitartean.

Eta hara non agertzen zaion etxearen aurrean amonari laguntzen dion etxezaina, *Zuuuuuu...!* ozenki esanez eta behatzarekin seinalatuz. Beldur-giroan murgildu gaitu idazleak, eta marrazkilariak tonu ilunetan aurkezten dizkigu ezagunak egingo zaizkigun pertsonaiak: Frankenstein ospetsua

Francis da, mamua beste gelan, Drakula sofan etzanda, eta abar. Amonaren etxean bizilagun ugari, eta tartaren arrastorik ez!

Kontakizuna lehenengo pertsona dago harilkatua, eta argibideak ematen dira parentesi artean, pertsonaiak hobeto zehazteko: *amonari batzuetan gauzak ahaztu egiten zaizkio*, edo *katuengana hurbiltzen banaiz, doministikuka hasten naiz*, dio neska protagonistak. Egitura errepikatzailea da, eta elkarrizketa nagusi: *Zuuuuuuuu...! Nor? Ni? Bai, zuuuuuuu! Ni ez!!*

Umorezko eta beldurrezko istorioa dugu, bi osagai garrantzitsu eta arrakastatsu haurren ipuinetan. Istorko dibertigarria, irakurlearen partaidetza eskatzen duena eta antzetzeko ere proposa.


Idazlea izateaz gain, kontu-kontalaria ere bada Pep Bruno, Guadalajaran bizi dena eta bertako Ipuin Maratoiaren bultzatzailearik bat. Egileari OOO Galiziako argitaletxeak iaz lehenengo aldiz kaleratu zion liburu ilustratu hau eta, Txalaparta euskal argitaletxearekin duen lankidetzari esker, haur euskaldunei eskaintzen zaie orain. Lehendik, 2010. urtean, bagenuen *Z familia* (Pamiela/Kalandraka), Album irudidunentzako Nazioarteko III. Compostela Saria jaso zuena, hura ere ezohiko familia.

Italiatik datorren Matteo Gubellini marrazkilaria (Bergamo, 1972) testuak dioena baino gehiago kontatzen digu. Ilustrazioak aberatsak dira oso, eta argi-ilunen nabardurak ekarpen onuragarria dira. Pastel-teknika erabiliz, espazioaren eta sakontasunaren bilaketa antzematen da. Emaizta edo komposizio guztiak ezberdinak dira eta giroa lortu dute. Izan ere, marrazkiek beldurrean eta misterioan murgiltzen gaituzte.

Amonaren etxean bizi diren pertsonaiek izu-ikara eragitea dute helburu, zinema eta beldur-istorioetatik ezagunak ditugun pertsonaiak dira, alegia. Haurra pertsonaia fantastikoei erakartzen dute, eta irudimenezko mundu propioak sortzean gozatu egingo du.

Lasaitua eta sosegua bukaeran etorriko dira, istorio umoretsua eta dibertigarria dugu, umore gozagarria. Garrantzitsua da gurasoen inplikazioa haurraren irudimena elikatzeke eta indartzeko. Liburu honek ematen du horretarako bidea.

Asun Agiriano



### Smara

PAULA CARBELLEIRA

Ilustratzailea: CAROLE HÉNAFF

Itzultzailea: FERNANDO REY

Pamiela-Kalandraka, Iruñea, 2012

#### Saharako istorioak

Pamiela eta Kalandraka argitaletxeen elkarlaren ondorio da honako liburu hau, eta, antza, bilduma berri bat ere.

Smara Saharako basamortuan dagoen errefuxiatuen herri baten izena da, eta bertara joandako mutiko batek kontatuko dizkigu bertan ikusi eta entzundakoak. «Gure aita oso kazetari ona izan omen zen. Nik gauza bakarra dakit: aita noiz itzuliko zain egoten nintzela ni, bidaietan ezagututako tokietako istorioak kontatzea nahi bainuen». Hitz horiekin hasten da liburu hau eta narratzaileak berak hamaika urte zituenean aitarekin eginiko bidaia kontatzen digu, bai eta amona Ugagorekin izaniko harremana ere.

Amona Ugago oso pertsonaia berezia da, umeen ardura du, beraiek zaintzen ditu eta istorioak kontatzen dizkie; horrela, liburuiko narratzaileak amonaren ahotan jarrita herritarrek Smara herria utzi eta basamortu erdian Smara berria nola eraiki behar izan zuten kontatuko digu, herrialde horretako sineskeriak eta ipuinak ere azalduko dizkigu, eta baita heriotzari nola egiten dioten aurre ere. Kontu asko kapitulu labur baina hunkigarrietan.

Irakurlea, gainera, Hénaffen irudien bidez, hitzen bidez iradokitzen den errealitate horretan murgil daiteke. Kolore pastelengatik bidez errealitate exotiko hori, basamortukoa, Afrikako mundua, islatzen da, testuan. Eta narrazioak berez duen xarma eta magia horri irudiarazten gehitzen zaio.

*Smara* liburu hau 11 kapitulu laburretan banaturik dago eta, hasieratik, lehen pertsonaren erabilaren ondorioz, irakurlearen inplikazioa bilatzen da. Protagonistarekin batera irri egingo du irakurlea, baina baita begietan negar-malkoak sentitu, sahararren errealitatea ezagutu eta haien egoera larrien berri eduki. Izan ere, Smara herrialde saharararen isla baita. Beren etxetik botata, basamortuan bizi den herrialdea, basamortu erdian dagoen errefuxiatu sahararren hiria.

Istori politikak dira, fantasia, magia, errealitatea, dena nahasirik ageri zaizkigu, sarritan kontakizun baten barruan beste ipuin batzuk ere tartekatzen direlarik, ipuin labur eta sinpleak. Eta aurretik iradoki bezala, liburuak ez du amaiera zoriontsurik, heriok ere presentzia baitu istorio honetan («Zertan ari zara, amona Ugago? Esan zuen amona Ugagok: «Gaua agurtzen, beldurrik ez dudala ikus dezan» esaten dio herioren bisita espero duen amonak), eta horrek guztiak irakurlearengan sentsazio gazi-goza uzten du.

Gustura irakurtzen den liburu hau da *Smara* hau, bai eta bihotza hunkitzen duena ere.

Xabier Etxaniz Erle



### Ametsi tripek hitz egiten diote

ANTXIÑE MENDIZABAL

Ilustratzailea: IOSU MITXELENA

Elkar, Donostia, 2012

#### Non dago aitona?

Antxiñe Mendizabalen istorio honen bidez Ametsi gaztetxoari jazotzen zaion kontu bat azaltzen zaigu. Amets ezin da lasai egon, ez da lasai egoten. Irakurleak liburuaren azalean bertan, paratestuen bidez (izenburua, Iosu Mitxelena irudi argia. . .), ikusiko du Ametsi arazo bat duela. Are gehiago, ipuinaren hasieratik bertatik adierazten zaigu zer den Ametsi gertatzen zaiona: «Ametsi, ohera sartu eta begiak itxi orduko, tripek hizketan hasten zaizkio [ . . . ]. Hain dira handiak hotsak, ezinezkoa zaiola lokartzea; ezinezkoa». Eta horixe da Ametsi duen arazo; horren zergatia, baina, ez zaigu ipuinaren amaiera arte adieraziko, ez dugu jakingo —kontakizunean zehar zenbait pista azaldu arren— zergatik dagoen horrela Ametsi, zergatik behar duen norbait ondoan oheratzen denean.

Gauari edo bakardadeari beldurra dionaren istorio dirudi kontakizunak, baina amarekin duen harremanean aitona hutsunea nabaritzen da eta, amonak haren falta sentitu arren, gertutasun handiz hitz egiten dio aitona; horrela, Ametsi tripa orroak direla eta, aitona txikitzen gertatutako istorio bat kontatuko dio Ametsi: aitona tripetan egokitu zen zizare izugarri luze eta gosetiarena, aitona elikagaiak irensten zituena.

Ilobaren eta amonaren arteko giro goxo horretan, amonaren komentarioak ipuinaren nondik norakoa hobeto ulertzen lagunduko digu: «Zuk tripetan korapilatuta daukazuna, aitonaren ziza-rearen antzera, larritasun handiren bat da».

Liburu-egileek gure artean oso gutxitan ukitzen den gaia ekarri digute haur txikien liburuetara: senide baten heriotzarena eta desagertzen horren aurrean txikiak sentitzen eta senti dezaketena. Testuak, arestian komentatu bezala, amonaren eta ilobaren arteko harremana adierazten digu, amonak kontatzen dion gertakari horretan zentratuta neurri batean; irudiak berriz, batzuetan kolore biziak erabili arren, nahiko grisak dira, barnekoia, irudi errealistak erabiliz, nahiz eta zenbait elementu fantastiko agertu sarritan; eta irudi horietan nahikoa da Ametsen begien jarraipena egitea umearen samina, beldurra, harridura, interesa edo, amaieran, negarra ikusteko.

Istoriaren amaieran tripetako korapiloa askatu arren, eta amonaren eta ilobaren irudia biak ohean etzanda, negarrez, horren adierazgarria izango litzateke, Ametsen hutsunea ez da bete, kezka ez da desagertu. Irakurleak, baina, badaki Ametsen tripek jada ez diotela hitz egiten, Amets lasaia dagoela eta amonarekin izaniko elkarriketaren ondorioz hutsune eta gabezia horien aurrean bizitzen ikasten ari dela.

Xabier Etxaniz Erle



### **Batbirulau!**

ANJEL LERTXUNDI

Ilustratzailea: ANTTON OLARIAGA

Alberdania, Erein, Igela, Donostia, 2011

#### **Literatura dosi txikitari**

Galtzagorri Elkartearen eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikorako Sailburuordetzaren ekimenez martxan jarri da «Klisis-klasikoak» bilduma, haur- eta gazte-literaturan klasikotzat har ditzakegun hainbat lan argitalpen zainduetan birplazaratzeko. 2011ko amaieran argitaratu ziren lehen lau lanak, komiki bat, itzulpen bat, sor lan bat eta orain komentatzen hasiko garen liburu hau, tradizioa gaur egunera ekartzeko eginiko apustu eta lan interesgarria. Bildumak ez du formatu zehatzik, liburu bakoitzak berea du, baina guztietan zaindu da edizioa, bai testuak zuzentzean bai irudi eta argitalpenari dagokienez; eta, hain zuzen, zalantzak ditut liburuaren azal gogor horien orde ez ote liratekeen egokiagoak beste batzuk eta bilduman liburu gehiago argitaratu.

*Batbirulau!* liburuaren 1984 eta 1986 bitartean Erein etxean plazaraturiko hiru libururen batuketara dugu. «Maria Goikoak» sailean argitaraturiko liburu hauetan geure tradizioetik jasotako kontakizun, jolas, kanta, esaera, ateraldi eta abar gaur egungo haurrei era erakargarri eta modernoan aurkezten zaizkie. Testua, irudia eta maketazioaren arteko konbinaketak bizitasuna ematen dio lanari eta pittin bat hemendik, apur bat handik, puska bat orain eta pixka bat ondoren... jateko (ira-

kurtzeko) moduko eskaintza egin. Eta horretan, aitortu egin behar da Olariagaren ekarpena testuak osatzen, zama arintzen eta orriak bizi-bizi igaro ahal izateko.

Liburuak, nire ustez, bi hartzaille zuzen ditu. Alde batetik etxean aurretik esan bezala zerbait irakurri, jolastu, ikusi eta ikasi nahi duen irakurlea, dela haurra bakarrik edo heldu batekin batera eginiko irakur ekitaldian (dastatze ekintzan); bestetik haurrekin aritzen diren guraso eta, batik bat, irakasleak ditu lan honek hartzaille. Zerbakiakin jolasteko, aho-korapiloak botatzeko, igarkizunak asmatzeko, ipuin laburrak esateko, jolasteko, kantatzeko... aukera handiak eskaintzen baititu lan honek egunerokotasunean. Eta horixe da, gainera, Lertxundik eskaintzen diguna zenbait testutan, irakurleak zenbait kasutan ikusi egingo duelako ezaguna den kanta, jolas eta ateraldi batetik abiatuta nola eskaintzen digun beste bat («Kalean gora,/ kalean behera,/ kalean gora/ gondola / ai, ai, ai, ai»).

Ipuin ezagunak eta txisteak ere ageri dira bilduma honetan, baina beti arestian aipaturiko helburu horrekin, literatura, irakurgai atseginak eskaintzea dosi txikitari, nekatu gabe irribarrea ezpainean izan dezagun luzaro edo une labur batean, liburu hau poliki-poliki irakur baitaiteke hala nahi izanez gero.

Xabier Etxaniz Erle



**Ez dago argi**  
 IDOIA ETXEBERRIA  
 Ilustratzailea: EIDER EIBAR  
 Elkar, Donostia, 2012

### Freskotasuna haur-literaturan

Batzuetan idazle berri baten lehenengo, idazlana aurrean zaudenean ez duzu alde zurretiko iritzirik, espektatibarik gabe, zuri-zuri zaudela egiten diozu aurre idazlanaren irakurketari. Horixe izan da hau sinatzen duenaren jokabidea *Ez dago argi* liburuaren aurrean. Idoia Etxeberria idatzitako lehenbiziko lana dugu ipuin hau eta Lizardi saria eskuratu ondoren aurkezten zaigu; ipuinaren narratzailea neskato bat da, Mireia, eta hiri batean bizi da. Etxe aurreko eraikinean argi bat ikusten du gauero piztuta, gortinak jaitsita dardelarik leihoan. Eta gertakari horretatik, piztutako argiaren misteriotik abiatuta istorio orijinal eta oso interesgarria planteatzen digu Etxeberria.

Ipuinaren argumentua piztuta dagoen argiaren inguruan zentratzen da, zergatik dagoen piztuta, zer gertatzen den etxe horren barnean eta zeintzuk diren Mireiaren eta bere inguruko hipotesiak gertakari horren aurrean. Eta hain zuzen, azken hau dela eta irakurlea Mireiaren munduan, edo munduetan esan beharko genuke, barneratzen da. Hiria eta herria (aitaren herria) ezagutuko ditugu, baten ezagun giroa: «Denek ezagutzen dute elkar. Amaren hitzak erabilia: "Denak daude katalogatuta, baita umeak ere"», eta bestearen handitasuna eta anonimata «badakit nor bizi den

10 +

gure etxeren gainean. Baita azpiko solairuan ere [...] baina ez dakit nor bizi den ondoko etxean, hormaren bestaldean». Baina espazioaz gain Mireiaren lagunak ere ezagutuko ditugu, batik batik Mireiari misterioa argitzen lagunduko diona: Paul («ikerlari sena dauka, nik bezalaxe. Eta haretxekin konpontzen naiz ondoen»).

60 bat orrialde dituen istorioa hamar kapitulu-tan dago banatuta eta hauetan komentario argiak, ateraldi lortuak eta gure gizarteari buruzko gogoeta egiteko moduko jokaerak azaltzen dira. Seme-alaba gehiago izateko nahia, gurasoen lanbideak, bizitzari buruzko ikuspegia, aitona-amonekin Mireiak duen harremana eta hauen filosofia bizitzaren aurrean, gauzen aurrean (tartean maria landarea eta hippiak ere agertzen direlarik),... kontu asko ageri dira han-hemenka sakabanatuta istorioan zehar Mireia eta Paulen abentura osatuz, aberastuz. Bai eta pasarte nahiko poetikoak ere argumentuaren barnean sarturik, zuhaitzaren definizioak ageri direnean, esaterako (batzuentzat zuhaitza sustraia, enborra eta adarrak den bitartean, beste batzuentzat txorien eta katagorrien etxea dugu edo ziburua jartzeko leku aproposa. Osaba Joakinrentzat aldiz: «haize egunetan, arriskua. Udan, itzala. Udazkenean heriotza»). Eta testuak erakusten duen poetikotasun hori Eider Eibarren irudietan ere islatzen da, errealitatea kontatuz baina baita itzalen bidez, pertsonaien zatiak erakutsiz iradokitzen dituzten ilustrazio itxura sinple horien bidez.

*Ez dago argi* ipuinarekin XXX. Lizardi saria eskuratu zuen Idoia Etxeberria eta ederki eskuratu kontatzeko moduagatik, eguneroko gertakariak istorio batean ederki txertatzeagatik, eta, batik batik, istorioari eman dion freskotasunagatik.

Xabier Etxaniz Erle



**Karramarro bat buruan**  
 KARLOS SANTISTEBAN  
 Ilustratzailea: LEIRE IPARRAGIRRE  
 Aizkorri, Bilbo, 2012

### Gaixotasunaz eta heriotzaz

Duela hilabete batzuk Txabi Arnal irakasleak aurkezturiko doktorego-tesian haur-literaturan heriotza tabu izateari uzten ari zaiola zioen; oraindik ere asko dagoela arlo horretan egiteko, eta gaia ukitzen zuten liburu guztiek ez dutela maila bera ez literatura aldetik ez gaiaren planteamenduen aldetik ere.

Karlos Santistebanek eta Leire Iparragirreraren artean aurkezten diguten liburu hau Arnalek aipatzen zuen bide horretan kokatzen da, tabua hausten ari diren liburu horien artean. *Karramarro bat buruan* June neskatoaren ikuspuntutik eginiko narrazioa dugu, eta karramarroak beti presente baldin badaude ere, kontakizunak baditu bi zati nahiko ezberdin. Lehena, karramarroei buruzkoa, Juneren gogoetez osaturik dago. «Niri beti gustatu izan zaizkit karramarroak» esaldiarekin hasten da, eta, ondoren, animalia horien ezaugarriak eta neskatoari sorrarazten dizkioten gogoeta eta pentsamenduak ageri dira: «Xebreak dira benetan!»; bai eta neskatoak karramarroekin izaniko enkontruak: «Behin, errekatxo batean nintzen gurasoekin [...]. Halako batean karramarro bat ikusi nuen [...] harri batzuen artean ezkutatu zen. Eskua sartu nuen eta: kosk egin zidan! Ai!». Istorioaren hasiera honek, nire ustez, ez du irakurlea harrapatzen, kontakizun sinplea da, gauza handirik ez dioena. Baina, hain zuzen, hasiera hori da kontakizunaren bigarren zatia

bide ematen diona: «Egun batean gurasoek Jon oso larri zegoela esan zidaten. "Zergatik dago txarto?" galdetu nuen. "Buruari karramarro bat sartu zaiolako" erantzun zidaten. Harrituta geratu nintzen. "Karramarroa buruan?"».

Eta irakurle helduak aurreikus dezakeen bezala, hasierako karramarroen istorioek eta Jonen buruan duenak bide ematen dute minbizia hitza aipatu gabe gaixotasun horri buruz hitz egiteko. Gaixotasunaz eta haren ondorioz sorturiko heriotzaz ere.

Santistebanek eta Iparragirrek –testuarekin eta irudiekin– gertakari hori modu arinean aurkezten digute, tabuaren zama kendu nahian bezala, eta, horrela, June neskatoaren eta Jon gaixoaren arteko elkarriketa dugu: «"Minik egiten dizu karramarroak?", galdetu nuen. "Ez, kili-kili besterik ez. Oso jostaria da gero!", erantzun zuen Jonen. "Orduan karramarroa ez da txarra, ezta?"; nik berriro. "Ez! Nik gaixotasun txar bat daukat, baina animaliak onak dira denak", azaldu zidan». Eta elkarriketa horrek, eta istorioaren kontakizun guztiak islatzen duten tonu lasai, goxoa, suabea . . . ikus dezakegu Leire Iparragirren irudietan ere. Jonen heriotza jazotzean, esate baterako, («Negar asko egin nuen. Negar, negar eta negar») June txiki, behera begira, zeruan eta lurtean ura, karramarro bat besarkatzen ageri zaigularik. Eta Jonen hildako lagunagatik sentitzen duen penaren ondoren bada bizitzan aurrera egiteko deia, Jonen buru barnean ur asko irudikatzen baitu Jonen, ur asko eta «uretan karramarro bat, igerian, jolasean!». Eta, horrela, jolasaren alaitasunarekin eta bizipozarekin amaitzen da liburu hunkigarri hau.

Xabier Etxaniz Erle



**Zizili**  
UNAI ELORRIAGA  
Ilustratzailea: MAI EGURZA  
Elkar, Donostia, 2012

### Abenturaz beteriko bidaia

«Zizili andreak aldrebes ikusten zuen guztia [. . .] ez zuen ezer ikusten, miopea zen, miope erabatekoa, 207 dioptria zeuzkan begi bakoitzean.» Horrela hasten da *Zizili* ipuin honen kontakizuna, emakume bitxi horren deskribapenarekin, eta hain zuzen miopia horrek, gauza asko ez ikusi baizik eta imaginatu ondoren egiten dituen jardun du egileak liburuan zehar. Zizilik betaurreko guztiak probatu ondoren izan zuen Londresen artaziekin betaurrekoak egiten zituen jostun baten berri eta «Zizilen oftalmologoa seguru zegoen Londreseko betaurreko haiekin konponduko zuela arazoa: munduko betaurrekorik onenak ziren Hastings jostun ingelesaren betaurrekoak. . .». Andreak, orduan, Hastings jostunarengana joatea erabakitzen du, baina bidaia kotxez edo hegazkinez edo beste edozein garraibideren bidez egin beharrean oinez egitea deliberatzen du («presa handirik ez zeukanez, oinez joatea pentsatu zuen; ez zitzaizkion autobusak gustatzen, ez zitzaizkion trenak gustatzen. . . Bizikleta apurtuta zeukan») eta, hain zuzen, bidaia horren kronika dugu Unai Elorriagaren ipuin hau.

22 kapitulu laburretan kontaturiko istorioa dugu hau, Elorriagaren kontakizuna aurretik *Berria*

egunkariaren Mantangorri gehigarrian argitaratu baitzen zen epeka, eta horrek asko markatzen, mugatzen du narrazioa. Kapitulu laburrak dira eta zenbaitetan aurrekoan jazotakoa edo aurrekoaren hariaren lotura egiten da hasieran (aurreko astearen argitaratutakoa gogorarazteko), baina hori, liburu formatu honetan, soberan dagoela esango genuke. Kapitulu laburrak izateak, bestalde, erraztu egiten du irakurketa eta aparteko bizitasuna ematen dio istorioan zehar abentura, gertakari eta ekintza gehiago sartzeko aukera ematen duelako.

Ziziliren bidairen kronika dugu, beraz, istorioa hau, eta Oz-eko aztian bezala, hemen ere garrantzitsuena bidaia da, bidaian elkartzen diren lagunekin izaniko harremanak, hauekin batera bizitakoak, eta ez hainbeste bidaiaren helburua bera. Horrela igerileku pribatu batean sartzean Ziziliri gertatutakoa ikusiko dugu, eta honek bertakoei emaniko erantzun ironikoa; eliza batean lotan geratu ondoren hurrengo goizean eliztarrek hartu zuten sustoa deabru berdea ikusteaz (Zizilik aurpegian krema zuelarik), telebistarekin duen harreman bitxia, eta abar. Eta arestian aipatu bezala Oz-eko aztian eta horrelako idazlan klasikoetan gertatzen den bezala, hemen ere Zizili lagun berri batzuekin elkartzen joango da, mamua, lehoia, . . . oso lagun bitxiak, bereziak eta andrearekin batera bidaian abiatuko direnak.

Unai Elorriagaren liburu honetan umorea eta ironia ageri zaizkigu fantasiarekin batera, mundu errealean elementu fantastikoak ageri zaizkigu, edo konbinazio, elkarketa nahiko fantastikoak. Horri guztiari Mai Egurza ilustratzaile gaztearen irudi koloretsu eta biziak, idazkeraren argumentuarekin eta tonuarekin ederki uztarturikoak, gehitzen badizkiogu liburu nahiko interesgarria ematen du, entretenitua eta erraz irakurtzekoa, abenturak eta umorea batzen dituen istorio fantasiosoa.

Xabier Etxaniz Erle



**Izu-izua**  
JOKIN DE PEDRO  
Elkar, Donostia, 2012

### Misterio eta ikara

Izenburuak iradoki bezala, misterio, beldur, ukitu beltzeko liburu baten aurrean gaude. Hiru istoriok osatzen dute liburua eta bigarrena dugu liburuari izenburua ematen diona.

Jokin de Pedrok aurrekoetan ere erakutsi izan du istorioak kontatzeko duen iaiotasuna eta, oraingoan, misterioa eta ikara duten istorio hauetan, gauza bera egiten du. Liburuko lehen ipuinak, «Beso baten istorioa», bi ezezagun ditu protagonista; jai batean elkarren ondoan eseri eta ipuinak kontatuko dizkiote elkarri. Ipuineko narratzaileak, lehen pertsona kontaturiko istorioa baita, auto-stop egiten besoa galdu zuen lagun baten kontua aipatuko dio ezezagunari, eta honek beso baten istorioa esango dio; ihesaldi batean bi preso lotzen zituzten eskuburdinak hautsi beharrean, besoa moztu zuen lagunarena. Irakurleak egoeraren tentsioa eta larritasuna senti dezake Jokin de Pedroren kontakizunean: «Garbi dago ezin dutena ihesean jarraitu [...] hor ibili dira eginahalak egiten, tira eta bultza, baina harri astunek ez dute amore ematen, zirkinik ere ez. Zer egin? Orduan igitaia irreparatu diote: eskuburdinak mozteko gai ez den arren, haragian erraz barnera daiteke».

«Izu-izua» ipuina, aldiz, egileak *Psycho* filmari eginiko keinuez eta aipamen zuzenez beterik dago. Film ezagunaren giroa eta egoera islaturik ikus dezakegu Euskal Herriko bazter batean, gizon bat etxe nahiko abandonatuan bere amarekin, edo haren espirituarekin. . . eta «Sukaldari baten istorioa» liburuari amaiera ematen dion azken ipuinean, aldiz, izua egoera aldrebesekin nahasirik ageriko zaigu.

Generoak eskatzen duen bezala, Jokin de Pedrok irakurlea harritu egiten du amaiera bitxi eta ustekabekoa eskainiz, norberaren beldur eta mamuei eginiko keinu horien ondoren geure buruaz ere irribarre egin dezagun, hori bai, izua sentitu ondoren.

Xabier Etxaniz Erle



**Larunbatean Bukowskin**  
JOHN ANDUEZA  
Elkar, Donostia, 2012

### Rock and love

Hauxe da John (edo Jon) Anduezaoren gazte-literaturako lehen lana eta, azalean ageri den Lander Ayllónen irudian ikus daitekeen bezala, gaur egungo gazte moderno edo gazte tribuen inguruko istorioa dela esan genezake. Zita bat dugu izenburua, eta bi paratestu horiek (azaleko irudiak eta izenburuak) irakurlea erakartzeko eginak daudela ematen dute. Barneko orrietan murgiltzean, berriz, gazte horien mundua islatzeko apustua ikusten da; gazte hizkera, beren eguneroko istorioak, mundua beren ikuspegitik kontatu nahi izatea. . . hots, irakurle gaztea identifikatua senti dadin eginiko lana.

Anduezaoren lehen lan honek ikasturte-hasiera batekin ekiten dio kontakizunari: «Irailek zazpi. Goizeko bederatziak laurden gutxi. Xato autobusetik jaitsi da, erdi lotan, aharrasika. Aitor Bergaretxe deitzen da, baina jaioberritan amamak sententzia harrigarria bota zion:

–Itsusi amorratua zara! Satorra ematen duzu!».

Eta ikus daitekeen bezala, politikoki zuzenetik ihes eginez ekiten dio egileak narrazioari. Xato dugu, beraz, istorioaren protagonista nagusia, eta haren egunerokoan jazozen direnak biltzen



dira nobelan zehar, eta horien guztien artean nabarmentzeko modukoa da neska eder batekin eta ezkutuan eginiko grabazio baten ondorioz gertatutakoekin erlazonaturikoak. Horrek, Nereak jasandako erasoak, markatuko du neurri handi batean liburuaren bigarren zatia. Lehena egunerokoak kontatzera eta egoeren deskribapenera mugatzen den neurrian, liburuak bestelako erritmoa eta jakin-mina sorrarazten du nesken dutxan eginiko grabazioaren ondorioz, eta Xatoki bi neskarekin, Pipi eta Nerearekin mantentzen duen harremana dela eta.

*Larunbatean Bukowskin* nobela honek gorabehera handiak ditu, gazteen hizkera eta egunerokoa islatzen ditu eta kapituluaren egiturak, ugari eta laburrak, laguntzen du irakurketa azkarra egiten; gazteen interesak eta kontuak azaltzen ditu eta narrazioan elkarrizketak pisu handia du, bizitasun handia ematen dio testuari, eta hori kapituluaren izenburuetan ere ikus daiteke: «Esaiozu euriari», «Marraketx fuxion», «Gros and roll», «Xato's song»,...; baina, bestalde, argumentua nahiko sinplea da, aurreikus daitekeena: pertsonaien garapen urria, ez da ikusten nobelak aurrera egin ahala aldaketarik haiengan; eta amaiera, zoriontsua, ez dagokio —nire ustez— nobelaren tonuari.

Edozein modutan azkar eta di-da batean irakurtzen den nobela entretenigarria dugu Anduezarren lan hau, ongi idatzia eta irakurle gazteek gustura irakurriko dutena.

Xabier Etxaniz Erle



**Marta ispiuaren aurrean**  
TERESA CALO  
Itzultzailea: MITXEL MURUA  
Elkar, Donostia, 2012

### Hil ondoren kontalari

Ez da ohikoa gure artean idazleak hitzaurre bat idaztea bere obraren hasieran, are gutxiago hitzaurre horretan bere obrarekiko harridura adieraztea, baina horixe da Teresa Calok liburu honen lehen lerroetan egiten duena: «Ni neu harritu nintzen, beste inor baino lehen, neure burua nerabeentzako istorio bat idazten ikusi nuenean». Caloren ibilbidea jarraitu duenak badaki, batez ere, helduentzako antzerkiarekin eta telebistaren inguruko sailekin erlazonaturiko lanak idatzi dituela. *Marta ispiuaren aurrean*, aldiz, gazteei zuzendutako haren lehen liburu da.

Obra hau, nire ustez, paraliteraturan koka genezake. Anorexiaren gaia tratatzen duen idazlana dugu. Martak, hil ondotik, linbo antzeko toki batetik, egoera horretara nola iritsi den kontatuko digu, zer pentsatzen duen, zer sentitzen, zer egingo zukeen... eta Marta berri horren *alter ego* moduan «Eskeltoa» dugu, Marta gaixoa, gaixorik zegoenean pentsatzen, uste eta jokatzeko duen moduan jokatzeko duen pertsonaia; eta oraingo Martari aurre egiten diona beste garai batean neskak gurasoei edo amonari egin zien bezala.

Obran agertzen den hirugarren pertsonaia «Pisua» dugu; egunero Martari zuen pisuaren berri ematen ziona, zenbat argaltzen zen ospatzen zuena.

Teresa Calok, istorio hau kontatzeko, fikzio hau aurkezteko, antzerkiaren mundura jo du, eta antzezlan, bakarrizketa bat (nahiz eta tarte batzuetan Eskeltoa eta Pisua ere ageri), darabil Martak bere istorioa kontatzeko. Eta, gaiak izan dezakeen interes eta gaurkotasunaz aparte, horixe da liburu honek duen balioetako bat. Nola aurkezten zaigun istorioa, agertoki batean neska gazte batek publikoari zuzenduz osaturiko istorioa. Alegia, kontatzen duena interesgarria eta oso gai serioa izanda ere (gazteei irakasteko eginiko kontakizuna ere izan zitekeena, edo gutxienez irakasten duen literatura hori), liburu honetan bitxia eta berria dugu Martaren istorioa kontatzeko modua. Calok nola sartzen gaituen istorio bizi eta hunkigarri horretan errekurtsio, kontalari gutxi batzuk erabiliz, baina, hala ere, ikuspuntu ezberdinak eskainiz.

Martak Interneten aurki dezakeen laguntzaz hitz egiten digu, anorexiaren arteko komunikazioaz eta animoaz, bai eta lagun bulimikoei buruz ere, zer egiten zuten... eta egunero amarekin, aitarekin, amonarekin izaniko eztabaidak, haien jokabidea arazoaren aurrean, eta abar. Baina egoera eta hausnarketa pertsonal horien ondoan, bada gizarteari eginiko kritika ere: «Bikini-operazioa. [...] Gure etxea aldizkariz bete zen, eta guztiek kontu bertsuak zekartzaten, jira eta buelta: kaloria gutxiok dietak, ariketak egiteko taulak, edertasunari buruzko gomendioak... "Gizendu gabe, jan". "Gal itzazu hiru kilo astebetean", "Manten ezazu tripa zapal", "Libra zaitetz betiko laranja-azal zimur antiestetikoaz"». Izan ere, gure gizarteak duen edertasun-ereduak badu zerikusia liburu honetako gaiarekin.

*Marta ispiuaren aurrean* nobela interesgarria da. Anorexiaren gaia nahiko modu sinplean baina serioan planteatzen duen obra honek, gainera, bakarrizketaren teknika hurbiltzen du gazte literaturara. Istoriok kontatzeko modu berri, arin eta interesgarria eskaintzen du.

Xabier Etxaniz Erle



**Paperezko bizitzak**  
MANU LÓPEZ GASENI  
Pamiela, Iruñea, 2012

### Fikziozko errealitatea

Manu López Gaseniaren eskutik datorkigun eta *Paperezko bizitzak* izenburua duen liburu hau triptiko baten moduan irekitzen da irakurleen begien aurrean, dialektikan parte hartzen duten osagaiek ere hemen bertan beren presentzia aldarrikatuko balute bezala. Izan ere, irakurlea, idazlea eta bien arteko harremana da triptiko honetan agertzen zaizkigun oinarritzko osagai horiek. Lehenengo osagaia irakurlea da, kasu honetan Isabella izeneko neska. Irakurle amorratu hau konturatu da berak miresten duen idazle baten liburuetan gero errealitatean gertatuko direnak azaltzen direla gertatu baino lehenago kontatuta. Gertakari horrek harridura sortzen dio eta harridurarekin batera benetan zer gertatzen ari den jakiteko irrika. Misterioak idazlearekiko susmo ilunak piztera ere eramango du. Hori dela-eta, idazlearekin jarriko da kontaktuan eta bere susmoak jakinaraziko dizkio, zeren nola da posible idazle batek gertatu baino lehenago zerbait kontatzea, bere idazkien bidez errealitatean eragiteko nolabaiteko ahalmenik ez badu? Eta hemen hotsean hain antzekoak diruditen kausalitate eta kasualitate kontzeptuekin egiten dugu topo: idazleak idatzitakoaren eta gero gertatutakoaren artean kasualitate harremanik ba ote dago? Ala zerikusirik ez daukaten gertakari

14 +

solteak dira? Idazleak neska e-mailez planteatzen dion misterioan sartzea erabakitzen du eta horrela bien arteko e-mailen trukaketa sortzen da. Nobela labur hau triptiko moduan aurkezten dela esan dut hasieran: lehenengo partean irakurlea dugu narrazioaren erdigunea; bigarrenean, idazlea; eta amaieran elkarri bidalitako e-mailen transkripzioa agertzen zaigu. Bestaldetik, liburu intriga istorio baten moduan irakur badaiteke ere (Isabellak kointzidentzia horien atzean dagoen misterioa argitu nahi du) benetako intrigak beste bide batzuetatik bideratuko ditu irakurleak: literaturaren, fikzioaren eta errealitatearen izaeraz hitz egiten zaigu bertan, haien arteko harremanez, zoriaz eta gizakiek hari solteak lotzeko duten beharraz. . . Gazteei zuzendutako liburu izanik, azkenean tonu didaktikoa ere nabarmetzen da, baina ziur nago irakurzaileek, gazte zein heldu, gozatuko dutela nobelaxo hau irakurtzean. Liburuan aurkezten den istorioari bakarrik falta zaio beste urrats bat gehiago ematea Borges-en gustuko istorioa sortzeko: bertako pertsonaiak beraiek ere paperezkoak direla konturatzeko, beren bizitzak ere fikziozkoak direla.

Javier Rojo



**Barku madarikatua**  
EMILIO SALGARI  
SEVE CALLEJAREN BERTSIOA,  
MITXEL MURUAK ITZULIA  
Alberdania, Irun, 2011

### Itsasoaren egarriz

Salgari XIX. mendeko itsaslapurren istorio sortzaile arrakastatsua izan zen. Hil zela iaz bete ziren 100 urte, eta urteurren hori gogoan hartuta, Alberdania argitaletxeak, Seve Callejaren edizio zaindu eta interesgarriari esker, itsas ipuin sorta ederra eskaini digu.

Julio Verne, Rudyard Kipling, Stevenson eta beste zenbait idazleek itsaso zabala aukeratu zuten irudimenaren eszenatokitzat, eta protagonista nagusi piratak izan ziren.

Geroztik, literaturak eta zineak, denon oroimean gordeta dugun itsaslapurren irudi epiko eta poetikoa erakutsi digute. Horrela, idealizatu ditugu piraten askatasun egarrria, altxor misterioetsuaren bilaketa eta ekaitzen artean gertatzen ziren itsas borroka odoltsuak.

Salgarik, marinel hauen ibilerak hizpide hartuta, giro propioa sortzen asmatu zuen. Abenturazko kontakizunen ezaugarri guztiak batu zituen, eta, hala, paraje exotiko eta lurralde urrunetan zebiltzan Kortsario Beltza edo Sandokan bezalako heroi gogoangarriak gazte askoren imaginarioan betirako geratu ziren.

Askotan, itsasgizon trebe hauek izaera konplexua agertzen zuten, batzuetan krudelak, besteetan zintzoak, baina istorio gehienetan ausartak eta duintasunez beteak. Nortasun kontraesankorra zuten, hau da, aldika malenkonia eta erromantizismorako joera agertzen zuten, hurrengoan arrisku ugariri aurre egiten agertuko ziren, eraso, borroka eta akzioa nagusi izanik, eta, zenbaitetan, oroitzapen mingarrietan murgilduta ikusiko genituen.

Horrela agertzen zaigu Galipot zaharra ipuin hauetan. Itsasontziko kapitainak mozkortuta harrapatu du, eta gauero tripulazioari istorio bat kontatzera zigortzen du. Guztira, dozena bat ipuin, protagonista *Catrame*—Galipot italiaraz—marinel edadetua delarik. Erritmo bizian harilkatzen ditu itsasoan berak bizitako gertaera beldurgarri eta misteriotsuak. Sineskeria eta fantasia uztartuz kontatzen ditu Galipot itsasgizon zailduak ahoz aho iritsitako elezaharrak, ikusi dituen ekaitz ikaragarri eta naufragio izugarriak. Eta tripulazioaren errespetua lortu ez ezik, ezinegona eta beldurra ere barreiatzen ditu. Bitartean, barkuko kapitaina sinesgogor eta zalantzakor agertuko da. Kontakizunak entzuterakoan, irakurlearentzat garbi geratzen dira bi protagonisten izaera kontrajarriak: Galipot oroitzapen mingarrietan itota; eta kapitaina logikari helduta, ipuinak amaitzerakoan eszeptizismoa eta azalpen zientifikoak ematen.

Ipuinak deskribapen xehez jantzita agertzen zaizkigu, hainbatetan ematen diren ohar interesgarriekin osatuta, izan ere, azpimarratu behar dira Seve Callejaren edizio arduratsuaren lana eta Mixel Muruaren itzulpen bikaina. Osagai horiek, misterio giroak eta irudimen handiko pasarteek samur lortzen dute irakurlearen arreta eta konplizitatea harrapatzea.

Seve Callejak berak dioena hitz-atean:

Salgarik *gonbit bat luzatzen digu, guk ere bere abenturazko eta amodiozko ametsak irudimenean bizi ditzagun, haietaz gozatzuz. . . edo sufritzuz.*

Ehun edo berrehun urte igaro badira ere, misterioa, beldurra edo itsasoan galdutako altxor eta marinelen pasadizoek gaur ere ukitu eta hunkitu egiten gaituzte.

Asun Agiriano



**Ultramorea**  
NANCY HOUSTON  
Itzultzailea: Jon Muñoz  
Alberdania, Irun, 2012

#### Arima errebeldeak

Alberdania argialetxeak jarraitzen du idazle interesgarrien liburuak euskarara ekartzen. Horrela iritsi zaizkigu Nancy Huston kanadarraren bi liburu: *Jaiotze markak* eta esku artean dugun *Ultramorea*.

Lucy neska gazte protagonista 13 urte bete, eta egunerokoa idazten hasiko da, *babes-egunkaria* dio berak. Zeren aurrean babestu?

1936ko udan kokatzen da istorioa. Batetik, krisi ekonomiko latz batek lanik gabe utzi du jende ugari, eta, bestetik, lehortek ipar-amerikar menderalde osoa astindu du. Nekazari kanadarraren uztak ihartu egin dira, eta gosea non-nahi barreiatu da. Makina bat arlote etxeetara hurbiltzen da goseak, zopa urtsu bila; eta Lucy-ren aitak, fede handiko apaizak, daukaten apurra eskekoekin banatzen du, familiaren aurrean sermoia eginez. Neskailak honela idazten du: . . . *kalaria gehiago eta bero gutxiago behar dut nik. Libreta hau iturri bat izan dadila, non egarria kentzera etor ahal izan nadin.*

Lucy-k gogoak ematen diona idazteko erabiltzen du koaderno, bere burua hobeto ezagutzeko,

hitzeekin libre sentitzeko—nahi badu ortografia akatsak edo *hor konpon!* idazteko—, gurasoen esanak pikutara bidaltzeko, kexatzeko. Izan ere, libretak ez dio errietarik egingo, isilik egongo da bere gelako ohearen koltxo azpian.

Aitak egunero otoi egin eta hitz gozoak etengabe ahoan dituen bitartean, ama beti suminduta, haserre eta muturtuta ibiliko da, garai hobeak ezagutu baititu, eta sosik gabeko artzain batekin ezkondu delako. Neskaren barnean jaiotzen diren galderak eta zalantzak erantzunik gabe gelditzen dira, *pentsemendu gaiztoak* baitira gurasoentzat. Beraz, libretan idaztea da familiarik eta konbentzioetatik ihes egiteko bidea.

Oro har, egunerokoa idaztea nerabezaroan baliabide erabilia izaten da, *lagun imaginario* deitzen diote psikologoek, eta haragizko batek baino indar handiagoa du. Lucy-k koadernoari heldzen dio arima libreago sentitzeko.

Idazleak aurkezten dizkigun pertsonaien artean badira izaera makala dutenak, baina hartzen dituzten jarrerak ez dira gaitzesten, ezta epaitu ere. Pertsonen arteko harremanen ikertzailea da Nancy Huston, eta idatzi dituen beste eleberrietan ere islatzen du Historiako gertaera lazarriek gizakien bizitzan izan duten eragina, nola bizi izandako gatazkek haurtzaroko oroitzapenak menderatzen dituzten.

Liburuan krisiak biluztutako errealitate gordina islatzen da. Garai latzetan, Lucy-ren gurasoek ez dute jada autoritate moralik, eta gidari baten faltan dago neskatila. Agertuko da bai, Bernard doktore gaztea, azal azpitik begiratzen irakatsiko diona, konfiantza izaten lagunduko diona, eta neska «*uhin ikusezinez*» zeharkatuta utziko duena. Hortik dator izenburua, eta badu beste bat argi izpien izenarekin *Infrared*, baina helduentzako eleberria da, oraindik euskarazko itzulpenik gabe.

Funtsean, egile ezagun honek nerabeentzat idatzi duen lehen eleberri labor honetan, mundu itxi baten gaitzespena dago.

Kontakizun hunkigarria eta zer pentsa ematen duena.

Asun Agiriano